AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3052

AGINDUA, 2012ko ekainaren 14koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, sail horretan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko maiatzaren 8ko Aginduaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (maiatzaren 23ko EHAA, 100. zk.), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Milagros Gonzalez Marrodan andrea Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izendatzea (kodea: 520010; dotazioa: 91).

Bigarrena.– Izendapen honek ekainaren 18tik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean; edo, bestela,administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 14a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.